





San Joan jaietako promozioa txekeen irabazleak. HITZA

## Sanjoanetako sariak banatu ditu Tolosa&Co elkarteak

**E. Maiz** Tolosa

Tolosa&Co merkatarien elkarteak banatu ditu jaien harira egindako sanjoanetako promozioaren txartel sariak. Hilaren 5ean egin zuten zozketa, eta honako hauek izan dira zortea lagun izan dutenak: Maite Laskibar, Aranguren joskintza; Mercedes Ameztoy, Mujika arropa denda; Maria Angeles Brel, OH Haur moda; Jon Ander Aizpurua, Muñagorri harategia; Eli Garcia, Mabel arropa

konponketak; eta Ion Uhalde, Irrintzi taberna.

Sustapen hau Tolosa&Co Elkarte bakoitzak bere 500 euroko erosketarako txekea jaso du, eta datozen bi hilabetetan erabili ahal izango dute Tolosa&Co elkarte bakoitzeko kide direnen artean.

Berriro ere, «irailean izango dugu sustapen berriak martxan jartzeko aukera», adierazi dute elkarteak.

## Kirol ikastaroetan izena emateko aukera, zabalik

**E. Maiz** Irura

Irurako Udaleko Kultura eta kirol batzordeak prest du 2013-2014 ikasturterako hainbat kirol ikastarotan izena emateko eskaintza. Erreserbak egiteko aurre-matrikulazio epea zabalik dago hilaren

23a bitarte. Interesatuak, Peio Arrese Kalea leian dagoen Gazte eta Kulturuneko kultura bulegoan bete behar dute eskaera orria 09:15etik 14:45era bitartean, edo 943692674 zenbakira deituz edota [kirolakirura@gmail.com](mailto:kirolakirura@gmail.com)-era mezu bat bidaliz.

## Irudia Tolosa



## EUSKARA PRAKTIKATUZ, IBILIAN

Udan euskara *ibiliz praktika* TU euskara andando programaren barruan, Kike Amonarizekin buelta polit eta interesgarri bat eman zutela, Tolosa barrera, adierazi dute Banaiz Bagara elkartetik. Hiru astetan jarraituko dute, eta asteazkenetan jarriak dituzte hitzorduak. Hilaren 24ean, Tolosa-ko berdeguneetatik paseoa egingo dute. Hilaren 31n, palan ibiltzera joango dira, eta abuztuaren

7an, berriz ere, Tolosako berdeguneetatik buelta egingo dute. Abiapuntua beti Trianguloa plaza izan ohi da, eta 19:30ean elkartzen dira. Ordubeteko saioa egin ohi dute. Antolatzaileek gogora ekarri dute parte hartzea doakoa dela, eta euskara praktikatu nahi duten guztientzat irekia dela. Abuztuaren 11n, Banaiz Bagara elkartearen Uda-ko Festa ospatuko dute, Zarautzen. HITZA

## Irurako jaietako egitaraurako marrazki lehiaketa, bukatzear

San Migel jaietako egitarauan argitaratzeko dira marrazkiak; astelehena da lanak aurkezteko azken eguna

**E. Maiz** Irura

Irurako jai batzordeak Marrazki Lehiaketa antolatu du San Migel jaietako egitarauaren barruan argitaratzeko. Lehiaketa hiru mailatan banatu dute, eta lanak aurkezteko azken eguna hilaren 22a, astelehena, izango da. 14:30ak baino lehen, udaletxeko kultura bulegoan utzi beharko dira.

Iruran erroldatuak parte hartu ahaliko dute, eta 2002-2010 urteen

arteak jaiok izan beharko dute. A maila, txikiak, 2008-2010 urte artean jaiotakoak; B maila, ertainak, 2005 eta 2007 urteen artean jaiotakoak, eta C maila, handiak, 2002-2004 urteen artean jaiotakoak.

Gaia Irurako San Migel jaiak izango da, eta ez du testurik ageritu behar marrazkietan. Bestalde, DIN A4 tamainako lanak izan beharko dute, eta edozein teknika onartuko da, hau da, collagea, manley, akriliko, ... Lanetan ezin-go da egilearen daturik azaldu, eta hauek gutun azal itxi batean aurkeztu beharko dira. Lanak udalaren esku geratuko dira eta honek marrazkiak argitaratzeko eta ezagutarazteko eskubidea izango du.

Epaiahaiak hilaren 24an argitaratuko ditu erabakiak Irurako Udalaren web orrian. Maila bakoitzeko sari bakarra izango da, eta saria Anoetako Kuku-Lore denda erabiltzeko txartela izango da.

### Jai batzordearen bilera

Irurako Udaleko jai batzordea astero elkartzen da herriko jaiak antolatzeko helburuarekin. Hilaren 22an, astelehenean, izango da hurrengoa. 19:00etan udaletxean elkartuko dira. Batzordea irekia da, eta udalak herritarren parte hartzea sustatu nahi du. Horretarako, herritar guztiei gonbidapena luzatu diete, animatu daitezzen eta bileretan parte har dezaten eskatuz.

Gainera, batzordetik jakinarazi dutenez, hilaren 8an egindako bileran, jai-batzordeak ondorengo deialdiak egitea erabaki zuen jaien antolaketa ahalik eta parte hartzaileena izan dadin: jaietako egitarauaren liburuxka apaintzeko marrazkiak biltzeko lehiaketa antolatzea; aipatu egitarauaren liburuxka hori diseinatu eta montatzeko maketatzailerak eskaintzea, eta jaien hasierako suziria botatzeaz arduratzeko ohorea izango duen pertsona edo taldea aukeratzeko laguntzeko proposamenak egitea.

oanoetaldea@hitza.info

**www.inmosalbide.com**

**Salbide**  
SALBIDE  
Higazten jarritzak

**Aia.** Urtebete Auzoan. 120m<sup>2</sup>-ko berrak (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m<sup>2</sup>-ko terranoa. Oso polita. **Prezio onean 240.405 euro!**

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegre. 87m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 bainugelak, terraza (9m<sup>2</sup>). **282.476€ euro!**

**Zarautz.** Aritzabalde. 3 logelako, 2 bainugelak terraza eta trastelekuak. Oso egoera onean. Altua eta eguzkitasun. 75.000.000 pezeta!

**Zarautz.** Añe zaharretan. Logela bateko etxebizitza. **150.253 euro!**

**Zarautz.** Aritzabalde piztan. 3 logelako etxea (87m<sup>2</sup>) + trastelekuak (11m<sup>2</sup>) + garaje itxia (20m<sup>2</sup>). 61.562.820 pezeta. Oso prezio onean.

**Zarautz.** Mixelena Kalea. 3 logela, 2 bainugelak, terraza eta trastelekuak. Igozaila eta gara. **352.425€ euro!**

Bizkaia kalea, 6 - 20800 Zarautz - Tel: 943-01 07 00 - Mug: 665-71 85 96

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Tolosako alkate Ibai Iriartek, eta Mugikortasun eta Bide Apiegiturarako diputatu Larraitz Ugartek sinatu zuten hitzarmena. ITZEA URKIZU

## Urrian hasiko dituzte Larramendiko biribilgune berria egiteko lanak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 180.000 euroko diru laguntza eman dio Tolosako Udalari, proiekturako

### Itzea Urkizu

Tolosako Larramendi kalean, gasolindegia ondoan, datorren urrian biribilgunea egiten hasteko proiektua formalizatu, eta lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Tolosako alkate Ibai Iriartek, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Apiegiturarako diputatu Larraitz Ugartek. Besteak beste, aldundiak 180.000 euroko diru laguntza emango dio udalari, 600.000 euroko aurrekontua osatzeko.

Ibai Iriarte alkateak, «proiektua aspaldikoa» dela azaldu du, eta gogora ekarri du, hasiera batean Larramendi eta Belate lotzeko zubi bat ere aurreikusitua zutela. Hastapeneko egitasmo honek, ordea, zenbait arazo tekniko zituen, eta besteak beste Ur Agentziak azpimarratu zituen proiektuaren akatsak: «Ur Agentziak, gaur egun, 500 urtera begirako uholde arriskuak neurtzen ditu, eta proposaturiko proiektua ez zuten bideragarritzat jo», azaldu du Iriartek. Halaber, Larraitz Ugarte diputatuak, zubiaren kostuaz gain, «proiektuak zituen akats larriak eginezinak» zirela azpimarratu du.

Honegatik guztiagatik, eta Tolosako Udalak zubi eraikitzeko helburua atzera bota ez duenez, «egiteko modukoa den zubi bat

eraikitzeko ideia aztertzen» ari dira: «Lanean ari gara, baina biribilguneak ezin du itxaron gure ustez, eta lehen zatiari ekingo diogu», dio Ibai Iriarte alkateak. Modu honetara, atzo bertan sinaturiko lankidetzaz hitzarmena proiektuko lehen faseari dagokiona da, eta bigarren fasean burutuko dute biribilguneetik Belatera, GI-3650 errepidera, joango den zubi.

### Trafikoa, segurtasunez

N-1 errepidean, Donostiatik Tolosara datozen ibilgailuen sarreran egingo dute biribilgunea, eta proiektua amaitzean, segurtasun baldintzak asko hobetuko direla azaldu dute Tolosako Udaleko eta foru aldundiko ordezkariak.

Batetik, Donostiatik Tolosara datozen ibilgailuek abiadura murrizteko balioko du biribilguneak, eta era berean, gurutzaguneak saihestu egingo dituzte. Honekin batera, aurrera begira eremu horretan aurreikusita dauden proiektuetarako ere «hobekuntza nabarmenak» ekarriko ditu biribilgune berriak: «Oria ibaiaren gainean zubi eraikitzen deneko prestatuta izango da eremua, eta horrez gain, Autobia Irla industriagunea garatzen deneko ere, sarbidea egokituta izango da».

Izan ere, Tolosako hirigintzako udal plangintzaren zati da Larramendiko biribilgunea, eta esparrua aldatuta garaietan denez, sarreara duin bat osatzea beharrezkotzat du Ibai Iriartek: «Hirigintzari dagokionez, herriko gune hori garatzen ari da, eta sarbideak ondo antolatzea ezin-

bestekoa da, izan ere, gaur egun ibilgailuek ezkererantz bira eman behar izaten dute puntu horretan, bai sartzeko eta baita irte-

### Berez bi faseko proiektua den arren, biribilgunea egingo dute hasteko

### Guztira 600.000 euroko aurrekontua beharko du udalak, lanak egiteko

### Obraren esleipena irailan egingo dute, eta urrian hasiko dira lanean

teko ere, eta horrek arriskua handitzen du».

Honenbestez, «trafiko dentsitate handiko leku honetan, segurtasun handiagoa izango da biribilguneak amaitzean, eta ibilgailuen fluxua dinamikoa bilakatuko du horrek». Azkenik, aipatzekoa da, Uzturre kaleko zirkulazioa bi noranzkotan jarri-

ahal izango dutela, guztia amaitzean.

### Udazkenean abian

Larramendiko biribilgunea berria egin ahal izateko, 600.000 euroko aurrekontua beharko du Tolosako Udalak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinaturiko lankidetzaz hitzarmenaren ondorioz, 180.000 euroko diru laguntza jasoko du Tolosako Udalak.

Larraitz Ugartek zehaztu duenez, aurrean 45.000 euro jarriko dituzte eurek, eta lanak amaitu eta guztia zuzen joan dela ikustean, gainontzeko 135.000 euroko jarriko ditu aldundiak; gogora ekarri behar da, proiektuaren lehen faseari dagokion finantziarioa dela honakoa.

Obra hauek guztiz amaitzeko 9 hilabeteko epea izango du enpresa esleipendunak, eta hain zuzen, datorren irailan burutuko dute biribilgune obraren esleitzea. Eraberritze lanekin, berri, urrian hasiko dira, gutxi gorabehera Larramendiko lurperatzearen eta urbanizazioaren lanak amaitzearekin batera.

o tolosa@hitza.info

### ↓ Iragarki laburrak

#### LAN BILA

**Etxeko lanak.** Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientziadun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea dauka. 943 696882 / 606 521992

**Hauxe Garbitasunak.** Garbibe-

ta orokorrak. Aurrekontua eskatzeko, deitu 68115 24 94 telefono zenbakira.

#### SALGAI

**Zezena.** Paperak egunean dituen Limosin arrazako 7 urteko zezena saltzen dut. Oso ona da eta 600 kilo inguru ditu kanale-

## Argentinako dantzariak eta Udaberrikoak, elkarrekin taula gainean

### I. Urkizu

Tolosako Udaberri dantza taldea Argentinako Necochea hiriko dantzariekin batera ariko da oholtza gainean, bihar, 12:00etan.

Necocheako Euskal etxeko taldea denez, Argentinako folkloarekin batera, euskal dantzak ere eskainiko dituzte taula gainean, eta beren emanaldiak saioko zatiarik nabarmena hartuko duen arren, Udaberriko kideek ere astinduko dituzte oinak.

Horrela, argentinarek Aureskua, Chacarera (Argentinako dantza), Zamba (Argentinako dantza), zuberotar maskarada, Makil-Dantza, Ezpata-Dantza, San Migel, Arku-Dantza, eta Fandangoa eta Arin Arina dantzatu-

ko dituzte. Tolosarek, beren aldetik, Kaxarranka eta Bizkaiko Arratia eskualdeko Jota eta Porrue eskainiko dituzte, batetik, eta Lapurdiko inauterietako dantzak ere ikusgai izango dira, 12:00etatik aurrera, Plaza Zaharrean.

## Tolosa CFren paleta txapelketako finalerdiak astelehenean

### I. Urkizu

Tolosa CFek urtero antolatzen duen paleta txapelketa azken txanpara iristen ari da, eta astelehenean jokatuko dituzte finalerdiak, 18:30etik aurrera, Berazubiko frontoian.

Zabala-Lazkano eta Aldazabal-Goikoetxea bikoteek finalerdietarako txartela eskuratu dute jada, eta gaur erabakiko dira finalerdietarako beste bi bikoteak. 18:30ean hasita, Balerdi-Agirre eta Karrera Izagirre ariko dira lehen saioan, eta bigarren partidian Elejalde-Berdegue Apeztegia-Maizaren aurka ariko dira.

an. Interesatuak, deitu 656 41 02 80 telefono zenbakira.

#### GALDUTAKOAK

**Katea.** Uztailaren 15ean, urrezko katea galduta gurean Alegian. Zerbait dakienak, dei dezala 647 31 56 09 telefono zenbakira. Saritua izango da.

Datorren asteazkenean hasiko dira Amasa-Villabonako Santio Jaiki. Ohiturak dioten bezala, kirola, dantza eta musika izango dira nagusi zortzi eguneko iraupena izango duten festetan.

# Zortzi eguneko gozamina

## Mikel Irujo Amasa-Villabona

Hasieratik Amasa-Villabonako Santio Jaikiak, datorren asteazkenean, arratsaldeko sekatan emango zate hasiera aurten goiz, eta astebeteko iraupena izango du.

Aurten, Billabona Kirol Elkartean izango da txupina jaurtitzaiz arduratuko den taldea, izan ere, klubak 30. urteurrena ari da ospatzen aurten. Behin festa lehortuta, buruhandi eta erraldioek eta kirolek izango dute protagonismoa. Gausan, bertiz, dantborrada izango da.

Santio-eguna ere kirol-ekintzetan jositako egongo da. Herri krosak jokatuko da batetik, eta aratsaldean bertan pilotak izango dira. Horrez gain, umenentzako kirolgunea jarriko dute pilotalekuan. Ohikoa den moduan, dantzak ere izango du bere tartea jaietan. Oinakari dantza taldeak emanaldia eskainiko baitu Olsaderra kiroldegian Popolo eta Kompagnia paizozekin batera.

Aurtegi berriantza nagusietako bat sokamuturrarena izan da. Azken urte hantetan gozaldien artean, Olsaderra kiroldegian ondoan. Aurten, Erreboteko plaza egongo dira, gara batean bezala. Gainera, arratsaldean egongo dira, 19.00etan ostegun-

an, eta 18.30ean, San Inazio-egunean, uztailaren 31n.

Bestaldea, jaietako kan-telaren irudizko, pasu den urtean bezala, Beatrix Medrano izan da.

**Herri afariako izen ematea**  
Datorren asteazkenean, hilaren 24an, egongo den herri afariako izen emate epaia gaur bertan irerki da, eta 20ra bitarteko izango da. Gausa bere egin behar da uztailaren 30ean Etxeondoren egongo den kiardillen arteko bazkariak. Horretarako epaia 22tik 24ra bitarteko izango da, ordutegi berarekin. Egunerdi txarra eginez gero, Txermingo ikastolaren arkupean egongo izango da bazkaria. Zortzi eguneko afariakoz txartelak bertiz, Amasa okindegia, Larrea okindegia, Iru Aldeta, Itzalpe eta Obaba tabernetan danda salgai.

**Boluntario beharrea**  
Bestaldea, aurtegi jaietan buruhandi eta erraldioen konpartean buruhandi gisa aritzeko boluntarioen bila ari da udala. Interesatutakoak, datorren uztailaren 22ko 14:00ak baino lehen eman behar dute izena kulturako bulegoan. Lau pertsonako taldeetan aurtenon abuztu izango da, eta nabizkoak 14 urte edulduz.



Sokamuturra Erreboteko plazan egongo da aurten, eta ez kiroldegian ondoan. A. MAZ

**Euskal Herria, 22 IBARRA**  
943 67 02 44

**Sartu gure webgunean**  
tolosaldea.hitza.info

**hitza info**

Jarraitu albisteak Twitter bidez  
@hitzatolosaldea

**Tolosaldeko eta Leiztaldeko Hitza orrialdeari eman 'atsegin du'**

**XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa**

**Sari mundialak!**

Bidali zure argazkia  
thargazkiak@hitza.info  
helbidera!

## Egitaraua

### UZTAILAK 24, ASTEAZKENA

- 18:00. Txupinazoa, Billabona Futbol Kirol Elkartearen eskutik, Irujo eta Mendiola taldeak kiroldegian.
- 18:15. Buruhandi eta erraldioen kalejira Irujo eta Mendiola taldearen eskutik.
- 19:30. Futbol txapelketako finala, Erreboteko plaza.
- 21:00. Herri afaria Erreboteko plaza.
- 22:00. Giza probak, Malatzaren Lehena plaza. Emakumezkoen enakustaldia (550 kilokoekin 15 minutuz) Oio eta Berrak taldeen eskutik. Ondoren, gizonen desafioa, (900 kilokoekin 20 minutuz), Aiztondo-Carso eta Loatza taldeen artean.
- 23:30. Dantborrada musika eskolako abuztua, Irujo eta Mendiola taldearen eskutik.
- 00:30. Dolce Tangana eta Venetia taldeen kontzertuak.
- 01:00. Gazte garaia abuztua, Irujo eta Mendiola taldearen eskutik.

### UZTAILAK 25, OSTEGUNA SANTIO EGUNA

- 09:00. Diana, Izona haizduztainero taldearen eskutik.
- 10:30. XXXIII. Herri krosa hauteratzat, Aiztondo plaza eta Zurbeltz elkartearen eskutik.
- 11:00. XXXIII. Herri krosa helduentzat, Aiztondo plaza eta Zurbeltz elkartearen eskutik.
- 12:15. Irujo eta Mendiola taldearen eskutik.
- 12:30. Loatza Musika Eskola-konpartean emanaldia Erreboteko plaza.
- 17:00. Kirolgunea, 11-17 urte bitarteko gazte-ekintzetan, Beazaren Frontolan.
- 18:00. Sokamuturra, Erreboteko plaza, izan ere, hiru dantzainero taldeak alaitu.
- 20:00. Bertso pilotak, Beazaren pilotalekuan. Bertsoariak: Jexu Mari Irujo eta Beñat Irujo.

### UZTAILAK 26, OSTIRALA GAZTEEN EGUNA

- 09:00. Diana, Loatza Musika Eskolako trikitilari taldearen eskutik.
- 10:30. Arkitektura taldearen eskutik, Malak plazan.
- 11:00. Patata tortilla lehiaketa, 11-17 urte artekoentzat, Berdura plaza.
- 14:30. Bazkaria, Berdura plaza. Onddo Gazte Asanbladen eskutik.
- 17:00. Poteo-kalejira, Orkotron Nazionalaren eskutik.
- 17:30. Haur parkea, Arman: kart zirkuitua, jumping, zeren mekanika, pambal eta beste hainbat gauza izango dira.
- 19:30. Txekor jatea eta sagardo dastaketa, Zurbeltz elkartearen eskutik.
- 20:30. Elkartasun kalejira, elizaren ondoan zabalduz, Herri elkartearen eskutik.
- 21:00. Elkartasun afaria, Berdura plaza.
- 22:30. Ereserji Abesbatza kontzertua erango du Gunea antzokian.
- 23:00. Desira, Lin Ton Taun eta Patuko Nica taldeen kontzertuak plaza.

### UZTAILAK 27, LARUNBATA ERROMERIA EGUNA

- 10:00. Xake jokoak, XXVIII. Santio Txapelketa, JM. Eskal memoria, Txistulari plaza, Billabona Xake Joko Elkartean antolatuta.
- 10:00. Eskulagintza azoka, Malak plazan.
- 11:00. Gorri eta bere animazio kuskuzina, hauteratzat, Olsaderra kiroldegian ondoan.
- 12:00. Atari Bai! Lehiaketa eta Egitarauko azala lehiaketa erari banaketa, Malak plazan.
- 12:00. Gomazko paleta eta eskuloko erakusketen finalak Beazaren Frontolan.
- 12:30. Erakusketak, Irujo eta Mendiola taldearen eskutik.
- 13:00. Lorzainen konpartasaren itzea, Txermingo kiroldegian.
- 16:00. Mus Txapelketa, Kale Nagusian.
- 17:00. Hauteratzako ikuskizuna, Arrioko plaza; Zinzaren arnasa.
- 18:00. Lorzainen konpartasaren itzea, Txermingo kiroldegian.
- 20:00. Saura DeLuxe beneko antzokiana, Gurea antzokian.
- 20:30. Kafe eta likore dastaketa erretiroentzako, Marie Bizkar erretiroentzako, Erreboten bitokian.
- 23:00. Dantzaldia Erreboteko plaza, Tximelata taldearen eskutik.

### UZTAILAK 28, IGANDEA

- 09:00. Diana, izona haizduztainero taldearen eskutik.
- 09:00. Plater txapelketa, Loatza Txistulariaren eskutik, Abutu-Mardoegi zelaietan.
- 10:00. Irujo eta Mendiola taldearen eskutik, Erreboteko plaza.
- 10:30. Irujo eta Mendiola taldearen eskutik, Erreboteko plaza.
- 11:30. Lorzainen konpartasaren itzea, Txermingo kiroldegian.
- 16:00. Mus Txapelketa, Kale Nagusian.
- 17:00. Hauteratzako ikuskizuna, Arrioko plaza; Zinzaren arnasa.
- 18:00. Lorzainen konpartasaren itzea, Txermingo kiroldegian.
- 20:00. Saura DeLuxe beneko antzokiana, Gurea antzokian.
- 20:30. Kafe eta likore dastaketa erretiroentzako, Marie Bizkar erretiroentzako, Erreboten bitokian.
- 23:00. Dantzaldia Erreboteko plaza, Tximelata taldearen eskutik.

### UZTAILAK 29, ASTELEHENA

- 11:00. Erretiroentzako ikuskizuna, Erreboteko plaza.
- 14:00. Erretiroentzako ikuskizuna, Erreboteko plaza.
- 17:00. Hauteratzako ikuskizuna, Arrioko plaza; Zinzaren arnasa.
- 18:00. Lorzainen konpartasaren itzea, Txermingo kiroldegian.
- 20:00. Saura DeLuxe beneko antzokiana, Gurea antzokian.
- 20:30. Kafe eta likore dastaketa erretiroentzako, Marie Bizkar erretiroentzako, Erreboten bitokian.
- 23:00. Dantzaldia Erreboteko plaza, Tximelata taldearen eskutik.

Datorren asteazkenean hasiko dira Amasa-Villabonako Santio Jaiki. Ohiturak dioten bezala, kirola, dantza eta musika izango dira nagusi zortzi eguneko iraupena izango duten festetan.

# Zortzi eguneko gozamina

## Mikel Irujo Amasa-Villabona

Hasieratik Amasa-Villabonako Santio Jaikiak, datorren asteazkenean, arratsaldeko sekatan emango zate hasiera aurten goiz, eta astebeteko iraupena izango du.

Aurten, Billabona Kirol Elkartean izango da txupina jaurtitzaiz arduratuko den taldea, izan ere, klubak 30. urteurrena ari da ospatzen aurten. Behin festa lehortuta, buruhandi eta erraldioek eta kirolek izango dute protagonismoa. Gausan, bertiz, dantborrada izango da.

Santio-eguna ere kirol-ekintzetan jositako egongo da. Herri krosak jokatuko da batetik, eta aratsaldean bertan pilotak izango dira. Horrez gain, umenentzako kirolgunea jarriko dute pilotalekuan. Ohikoa den moduan, dantzak ere izango du bere tartea jaietan. Oinakari dantza taldeak emanaldia eskainiko baitu Olsaderra kiroldegian Popolo eta Kompagnia paizozekin batera.

Aurtegi berriantza nagusietako bat sokamuturrarena izan da. Azken urte hantetan gozaldien artean, Olsaderra kiroldegian ondoan. Aurten, Erreboteko plaza egongo dira, gara batean bezala. Gainera, arratsaldean egongo dira, 19.00etan ostegun-

an, eta 18.30ean, San Inazio-egunean, uztailaren 31n.

Bestaldea, jaietako kan-telaren irudizko, pasu den urtean bezala, Beatrix Medrano izan da.

**Herri afariako izen ematea**  
Datorren asteazkenean, hilaren 24an, egongo den herri afariako izen emate epaia gaur bertan irerki da, eta 20ra bitarteko izango da. Gausa bere egin behar da uztailaren 30ean Etxeondoren egongo den kiardillen arteko bazkariak. Horretarako epaia 22tik 24ra bitarteko izango da, ordutegi berarekin. Egunerdi txarra eginez gero, Txermingo ikastolaren arkupean egongo izango da bazkaria. Zortzi eguneko afariakoz txartelak bertiz, Amasa okindegia, Larrea okindegia, Iru Aldeta, Itzalpe eta Obaba tabernetan danda salgai.

**Boluntario beharrea**  
Bestaldea, aurtegi jaietan buruhandi eta erraldioen konpartean buruhandi gisa aritzeko boluntarioen bila ari da udala. Interesatutakoak, datorren uztailaren 22ko 14:00ak baino lehen eman behar dute izena kulturako bulegoan. Lau pertsonako taldeetan aurtenon abuztu izango da, eta nabizkoak 14 urte edulduz.

**MAUKA** GAURKO EKINAKITZA

Menu berezia  
Gazteategi  
jatearekin,  
itsasari begira

GAZTEATEGI HITZA ERKALDEKO HITZA

Prezio 27€ berria

www.mauka.eu

**Real-Toulouse** Futbol partida

• Mikel Etxaburu (Tolosa) - Ioskun Carrera (Tolosa)

Uztailak 20, larunbata • 19:00etan  
Beasain Lortza futbol zelaietan

**GARAGARDO AZOKA**

• Maita Luna Antzoki (Aiztondo)  
• Josu Garmendia (Zizkadi)  
• Edoine Labaka (Villabona)

Sareak: Garagardo azokara sarrerak.

**Imanol Garcia Landa** Amezketak

Emaitza onak izaten ari da Iker Karrera (Amezketak, 1974) mendi lasterkaria aurtengo denboraldian. Dagoeneko lau probetan parte hartu du, eta hiru irabazi eta bestean hirugarren egin du. Txile eta Argentina arteko El Cruce Columbian egin zuen hirugarren, eta Pels Camins dels Matxos, Maurizioko Royal Raid eta Europako Mendien Travesera Integral lasterketak irabazi ditu, azken horretan probaren marka berria eginez.

Hala ere, denboraldiaren zati garrantzitsuen orain hasten dela azaldu du. Bihar bertan, Sutzan jokatzeko den Eiger Ultra Trail proban parte hartuko du. Bera izango da faboritoetako bat, mendi lasterkarien artean munduko onenetakoen multzoan baitago.

**Zer moduz doa denboraldia?**

Emaitza aldetik ondo doaz kontuak. Bestalde, lasterketa horiek ez dira hain garrantzitsuak, Traveserakoa kenduta, ondorioak ateratzeko. Hor daude emaitzak, baina beste transzendentziarik ez zuten lasterketak ziren.

**Europako Mendietako lasterketa izan da, beraz, orain arteko garrantzitsuenak?**

Bai, bere gogortasunagatik, eta baita orain arteko aurkari gogorrenak zeuden lasterketa, El Cruce Columbiarekin batera, zelako ere.

**Proba horretan marka berria ezarri duzu, gainera.**

Aurretik Txus Romon bizkaitarrak zuen marka, 12 ordu eta 05 minutu ingurutan, eta orain 11 ordu eta 02 minututan jarri du.

**Elurra egoteak lagundu egin omen zuen denbora hori lortzeko.**

Elurra zegoen eta horrek zati batzuetan mesede egin zigun, baina beste batzuetan kalte egin zigun. Beraz, batzuetan beste lagundutako eta kaltetutakoa kontuan hartuta, bere horretan geratuko zen. Pentsatu nahi dut denbora jaisiera hori ez dela izan soilik elurrrerengatik.

**Ez da arraroa urteko garai hauetan elurra egotea?**

Aurten hamargarren edizioa zen eta hainbeste elur zegoen urterik ez omen zaie tokatu. Normalean garai hauetan elur zulo txikiren bat edo izaten da, baina berez garbia egoten da. Pentsa, aurtengoa, gu korrika egiten ari ginen leku batzuetan mendiko eskiekin zebileen jendea. Hori bai zela pentsa ezina.

**Nolako zen ibilbidea?**

Europako Mendiak ikusgarriak dira: tontor zortzak, sakana handiak eta harritsuak, ibilbidea pasatzen den herriek ere bere ukitua dute, mendiko bordak eta lareak... Inguru oso polita da eta gero ikusgarria da erdialdeko mendigunea, Urriellu mendi ingurua. Egunsentiko argiekin, mendigunearen postala perfektua zen.



HITZA

**Iker Karrera** › Mendi lasterkaria

Aostako Tor de Gents proba da Karrerarentzat aurtengo denboraldiaren lasterketa nagusia. Aurretik, besteak beste, Eiger Ultra Trail proba korrituko du, bihar bertan.

# «Probetan faboritoetako bat izatearen presioa positiboki hartzen dut»

**Hala ere denbora asko ez duzue izango lasterketetan inguruko parajei begira egoteko.**

Denbora asko ez, baina begi baztarretik ikusten zoaz, burua tarteak altxatzen duzu... Une asko ezin dituzu hartu, eta gutxiago lasterketa horretan, oharkabetez txikienarekin hartzak bertan uzten dituzu eta. Hartzen diren une txiki horiek asko ematen dute.

**Beste lau proba dituzu aurretik aurtentzen. Nola ikusten duzu denboralditik falta zaizuna.**

Traveseran estatu mailan nahiko aurrean dauden korrikalarietako aritzea tokatu zitzaidan eta hemendik aurrera nazioarte maila-

koekin lehiatzea tokatuko zait. Beraz, lasterketek beste dimentsio bat hartzen dute. Alde batek lasterketak beraien gogortasun maila handiagokoak dira, eta aurkarien aldetik ere, esan bezala, beste maila batekoak izango dira.

**Eiger Ultra Traila egingo duzu larunbatean. Lehendabizikoz?**

Bai. 2008an mendiak egiten aritu ginen inguru horietatik, eta ingurua gutxi gorabehera ezagutzen dut, eta baita bideak nolakoak diren. Badakit Traveseran baino korrika egiteko bide osoagoak aurkituko ditugula, baina distantzia ere luzatu egiten da, 100 kilo-

metro baititu, eta aurkariak ere nazioartekoak izango dira. **Abuztuan Gran Raid des Pyrenees egingo duzu: 167 kilometro eta 10.300 metro maldan gora.**

Beste lasterketa dotore bat izango da, kasu honetan Pirinioetan. Ez dakit zein aurkarik zehazki izena eman duten. Lehenengo aldia da parte hartuko dudala. Lasterketa hau, garbi esanda, entrenamendu modukoa izango da. Oso hotz jokatu behar dudala da berezitasuna. Kontuan hartu behar da hortik hamabost egunetara Aostako Tor de Gents korrituko dudala. Lasterketa hari begira azkeneko entrenamendu garran-

tzitsua izango da. Ezin ditut karta guztiak mahai gainera atera, erre gabe aritu beharko naiz. Tor de Geants da denboraldiko helburu nagusia.

**Aostako bailaran, irailean, egingo duzu Tor de Geants. 330 kilometroko ibilbidea eta 24.000 metro maldan gora. Proba hori egiteko atsedena hartuko duzue, ezta?**

Pixkana distantziak luzatzen joango naiz, proba honetarako prestatzeko. Une honetan 76 ordutan dago marka, hau da, hiru egun eta lau ordu. Ezinbestean gelditu egin beharra dago. Hori da lasterketa honek duen berezitasunetako bat. Zuk zerorrek administratu behar duzu erritmoa, beharrak, noiz gelditu, non gelditu... Zuk moldatu behar duzu, ez dizute behartzen, zure esku dago hori. Estrategia oso garrantzitsua izango da lasterketa honetan. Bereziatasun horrek ere erakargarri bihurtzen du.

**Hau da zirkuari dagoen probarik luzeena?**

Ez, badaude luzeagoak. Distantzia gehiago edo gutxiago, nik bilatzen dudana probak berak zentzu bat izatea da. Kasu honetan, Tor de Geantsek Aosta bailara osoari itzulia ematen dio, eta horrek erakargarri egiten du. Ez da kilometroak pilotzeagatik sortutako bide bat.

**Zein aurkari izango dituzu proba horretan?**

Besteak beste, markaren jabea den Oscar Perez kataluniarra. Horretaz aparte, aurtentzen badakit nazioarte mailako korrikalariak doazela, distantzia horietan korri egitera ohituta daudenak.

**Denboraldia bukatzeko, Reunion irlara joango zara urrian, La Diagonale des Foux egitera. Hau ere ez da makala: 170 kilometro eta 10.000 metro maldan gora.**

Bigarren urtea da. Lehengo urtean lanak ez nituen bukatu eta ea aurtentzen posible den. 130 kilometro eta zerbaite gehiago egin ondoren utzi egin nuen.

**Arantza gelditu zaizu, beraz.**

Lasterketa utzi nuen burura etorri zitzaidan lehenengo gauza bertara ez nintzela berriro itzuli izan zen. Baina lasterketa dotorea da, iriak merezi du, izen handiko lasterketa da eta edozein korrikalari bere ibilbidean bukatuta izatea gustatuko litzaioken lasterketa da.

**Parte hartzen duzun edozein probetan faboritoetako bat izaten zara. Horrek presio handia suposatzen du?**

Honetan hasi ginen garaian posible zen bigarren lerro batean ateratzea, eta gordean egotea. Orain ezin da, eta bai, presio puntu bat suposatzen du. Baina bere alde ona ere badu: gauzak ondo ateratzen ari badira, eta batez ere lesioek errespetatzen badizute, presio horrek bultzatu egiten du. Motibazio bat ere izaten laguntzen du. Presioa positiboa den neurrian, nire ustez ona da, eta horrela hartzen dut.



Asteasuko Santamaña auzoan herritar ugari elkartu zen atzo goizean musikaz, bertsoez eta herri kirol probaz gozatzera. IT.

## Gaur eta bihar Joxean Tolosa Txapelketako partidak izango dira

I. Terradillos Amezketara

Iragan asteburuan hasi zen XXIV. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa, eta gaur eta bihar jokatuko dituzte bigarren jardunaldiko partidak Amezketako pilotalekuan.

Gaur, 22:00etatik aurrera, kadeteetan, Arandia (Arrankudiaga)-Garate (Arrasate) ariko dira; gazteen mailan, Ibarrondo (Arrankudiaga)-Sarasa (Uhartea); eta nagusien mailan, Arrese (Igorre)-Santxez (Astigarraga).

Bihar, berriz, 22:00etan hasita, kadeteen mailan, Bakaikoa (Etxarri)-Egiguren (Tolosa) ariko dira; gazteen mailan, Erasun (Zizurkil)-Alduntzin (Burlata); eta nagusien mailan, Artola (Alegia)-Oronoz (Lesaka).

# Giro ederra Santamañan

Herri kirolak, trikitilariak eta kalejira izan dituzte Asteasuko auzoko lehen jai egunean; gaur herri afaria egingo dute

Iñigo Terradillos Asteasu

Tranpazulo ermitaren kanpainen ondora igota egoteak iragarri die inguruko herritarrei Santamaña auzoan festetan murgilduta daudela. Santamaña elkarteak, Goiballako bizilagunek eta Asteasuko festa batzordeak antolatzen dituzten jaiak hasi dira, eta igandera bitarte giro polita nagusituko da Asteasuko auzoan.

Herritar ugari gerturatu zen atzo goizean jaien hasierara. Izan ere, goiz pasa polita egiteko aukera bazen. Batetik hamaiketako eskaini zuten, eta eguerdian herriko gazteen ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zen, herri kiroltan aritu baitziren. Horien ostean, mokadutxo eta tragoa lasai hartuz Peñagarikano eta Irazu bertsoetan entzuteko parada ere izan zuten, eta baita trikiti doi-

nuen erritmora dantza egiteko ere, Izer, Narbaiza eta Lutxurdio-ekin. Horien doinuek gaua ere alaitu zuten.

### Asteburu betea

Gaur herri afaria egingo dute, eta gauean trikitixa izango da. Bihar, berriz, mus txapelketa eta haur jolasak izango dituzte arratsaldean, eta gauean trikiti doinuek izango dira Santamaña.

Igandea izango da festetako azken eguna, eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizean txirrindu, aizkora eta harri-jasotze probak izango dira, Laja eta Mikel trikitilarien doinuek alaiturik Arratsaldean, ikusmin handia sortuko du bi herritar talderen arteko desafioak, eta gauean Tranpazuloren jaitsierarekin agur esango diete aurtengo Santamañako jaiak.



Goian, Izer, Narbaiza eta Lutxurdio, eta behean, Irazu eta Peñagarikano. IT.

## Transernio Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da

I. Terradillos Aduna

Adunako Transernio Pilota Txapelketako finalurrekoak abuztuaren 3an eta 4an jokatuko dituzte. Pasa den asteburuko larunbateko emaitzak ondorengoak izan dira: alebinetan, Azpeitia 16-9 Zizurkil; Zestoa 16-4 Bidegoian; Zizurkil 7-16 Añorga; eta infantiletan, Usurbil 13-18 Altzo; Zizurkil 9-18 Altzo; Azpeitia 18-12 Zizurkil.

Igandekoak: benjaminetan, Alkiza 7-16 Aduna; Bidegoian 4-16 Zizurkil; Villabona 1-16 Azpeitia; eta kadeteetan, Oiarzun 2-22 Lazkao; Amezketara ez zen aurkeztu, eta Ordiziak egin du aurrera.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info  
**Anoeta/Aldea:** 687 410 022. anoetaaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta loratzeak, 1. **Telefonoa:** 943 67 38 49.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren 52. **Telefonoa:** 112.

**BIHAR, HILAK 20**

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. **Telefonoa:** 943 65 46 10.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren 52. **Telefonoa:** 112.

**ETZI, HILAK 21**

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria, 46. **Telefonoa:** 943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren 52. **Telefonoa:** 112.

**ETZIDAMU, HILAK 21**

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. **Telefonoa:** 943 67 60 13.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren 52. **Telefonoa:** 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agenda**

**GAUR**

**DEIALDIAK**

■ **Amasa-Villabona.** Jaien barruan, hilaren 24ean izango den herri afarirako eta 30ean egingo den Etxeondoko bazkariko izen emateen berri eman dute. Herri afarian izena hilaren 19tik 23ra eman beharko da, 08:00etatik 11:00etara, kulturako bulegoan. Aldiz, bazkarian apuntatzeko aukera hilaren 22tik 24ra izango da, ordu eta leku berean.  
■ **Amasa-Villabona.** 17. Gara-gardo Azoka izango da, 18:00etatik 01:00etara, Jesusen Bihotza Txermin ikastetxe-ko jolastokian. 24. gara-gardo dastatzeko aukera izango da.  
■ **Asteasu.** Santamania auzoko jaien barruan, 21:00etan, herri afaria izango da. Ondoren, Laja II eta Narbaiza trikitilariak ariko dira.  
■ **Tolosa.** Aranzadi Zientzi Elkartek antolatuta Astronomia gaua izango da, 22:00etatik aurrera, Zerkausiko goiko solairuan, gauez zeruari begira jarriko dira.  
■ **Leitza.** Atekalbeltz gaztetxearen zortzigarren urteurreneko parrillada izango da gauean.

■ **MUSIKA**  
■ **Tolosa.** Sputnik 13 bilduma zuzenean aurkeztuko dute, 22:30ean Bonberenean, bertan parte hartu duten lau taldeen emanaldiarekin: Atila y los Unos, Barrua Truk, Broken Faces eta Wainot. Sarrera, 8 euro

ordaindu beharko da, eta disko opari izango da.

■ **Tolosa.** Orbela tabernan, Daniellis eta Danieuris Moya, Las dos D hizpen kontzertua izango da. Kubatar hauek beren sorterriko abestien tradizioa eskainiko dute, 23:00etatik aurrera.

**KIROLA**

■ **Tolosa.** Tolosa CFek urtero antolatzen duen paleta txapelketa bere azken txanpara iristen ari da. 18:30ean hasiko dira partidak. Lehena jokatzeko, Balardi-Agirre eta Karrera-Izagirre bikotea ariko dira, eta bigarrenean Elejalde-Berdegue Apeztegia-Maizaren aurka.

**BIHAR, HILAK 20**

**DEIALDIAK**

■ **Amasa-Villabona.** 17. Gara-gardo Azoka izango da, 18:00etatik 01:00etara, Jesusen Bihotza Txermin ikastetxe-ko jolastokian.  
■ **Asteasu.** Santamania auzoko jaien barruan, 16:00etan, Santamania XVIII. Mus Txapelketa izango da. 16:30ean, Haur jolasak egingo dituzte, eta ondoren, toka txapelketa. Gauean, Astiasaran anaia eta Leire trikitilariak ariko dira.  
■ **Leitza.** Atekalbeltz gaztetxearen zortzigarren urteurreneko ekitaldien txupinazioa izango da 12:00etan, eta erremonte suabizante txapelketa azkarra plazan. 14:30ean, bazkaria egingo

dute, eta arratsaldean, karrito joko poteo mitikoa izango da herririk barrena. 19:30ean, Lachula Potraren rap kontzertua gaztetxean. Ondoren, luntxa izango da, eta 23:00etan, Gose taldearen kontzertua.  
■ **Leitza.** II. Ziklo Indoor Topaketa izango da 16:00etatik aurrera, Saharar herriaren alde, herriko plazan.

■ **Tolosa.** Gau Giroko egitarauaren barruan, Udaberri dantza taldeak emanaldi berezia izango du Argentinako Necochea herritik etorritako Euskal Etxeko dantza taldearekin batera. 12:00etan hasiko da, eta Tolosako Plaza Zaharrean eskainiko folklorea eta euskal folklorea eskainiko dituzte taula gainean, eta beren emanaldiak saiko zatirik nabarmenena hartuko duen arren, Udaberri kideek ere astinduko dituzte oinak.

■ **Tolosa.** BOX. A Arte Elkarteak 3. merkatu berezia antolatuko du, *Made in Tolosa* lelopean. Eskuz eginiko lanak gauzatzen dituzten tolosar zein tolosaldeko pertsonen postuak: artea, artisautea, gauza bitxiak, janaria, osagarriak... izango dira. 16:00etatik 22:00etara izango da. 16:00etatik 18:00etara

umeentzako txapa tailerra; 18:00etatik 20:00etara, zuzeneko musika; 20:00etatik

**KIROLA**

■ **Bidegoian.** X. HITZA Pilota txapelketa finalak jokatu dira 10:00etatik aurrera, Bidaniako pilotalekuan.

**HILAK 21, IGANDEA**

**DEIALDIAK**

■ **Asteasu.** Santamania auzoko jaien barruan, 10:00etan, Andazarrateko XXIX. Igoera izango da federatu gabe txirindularientzat. 11:30ean, meza nagusia izango da, eta ondoren, Azurmendi eta Olasagasti aizkolariak, eta Aimar Irigoien harrija-sotzailearen saio ikusi ahal izango da, Laja eta Mikel trikitilariak alaiturik. 18:00etan, Auzoko Desapiyua: bi herritar talde elkarren aurka lehiatuko dira, 20 minutuz 700 kiloko harriarekin.  
■ **Amasa-Villabona.** 17. Gara-gardo Azoka izango da, 18:00etatik 01:00etara, Jesusen Bihotza Txermin ikastetxe-ko jolastokian.

**19-90**

**Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017**

**Egin HITZAren HARPIDEDUN**

ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte, ETA JASO:

**Barrenetxe**  
www.barrenetxe.com  
sasoiko barazkien otzara

Harpidedun egiten diren guztien artean

**Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU**

**Harremanetarako:**  
902 82 02 01  
harpidetza@hitza.info

**hitza**